

Kezka nagusi Asuncion klinikako langileen artean

Langileen gehiengoak eta hainbat erabiltzailek salatu dute lan baldintzak kaskartzen ari direla; espezialitatea homologatu gabe duten medikuen inguruko azalpenak ere eman dituzte // 2

«Ahalduntzearen begiradatik, ez dugu garbi nor garen»

KARMELE GURRUXAGA
PSIKOLOGOA

Ahalduntzeari eta garapen pertsonalari buruzko tailerra eskainiko du Berrobiko liburutegian; barrura begira jarriko ditu parte hartzaileak nor diren jabetu eta kanpora begira dutenaz hausnartzeko // 4



TOLOSA

NATURAZ KONTZIENTZIATZEN

Naturaren eta klimaren egoeraz herritarrak sentsibilizatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Tolosako Udalak martxoan; Uraren Nazioarteko Egunaren harira, Uraren astea antolatu du, eta hilaren amaieran Asteklima egingo dute // 3

ENERITZ MAIZ



ataria
argazki lehia

Mozorro hoberenaren bila




ALDEKOA



Suite Baztan saria:
Bi pertsonarentzako gau bateko egonaldia:
Jakuzzidun logela eta gosariekin
Zigako Aldekoa Landetxearen eskutik
948 45 26 06 • www.aldekoa.es
Epaimahaiaren sari nagusia

Bozkatu hemen





R. ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS

Lau pertsonarentzako otordu bat
Zabala sagardotegian
Goiburu auzoa, Aduna
943 69 07 74 • rzabala.com
ataria.eus-eko
erabiltzaileen saria



LURLAN
BASERRITIK
ZURE ETXERA
DOL. KATERIA & TIGELA

Bi lagunentzako bi afari
Lurlan Bistrot dendan.
Plaza Berria 2, Tolosa
943 24 33 39 • lurlanbistrot.eus
Atarikideen saria

«Inor ez da arduratzen 340 langile baino gehiagoren etorkizunarekin»

Ospitaleko langileen gehiengoak kezkaz hartu ditu azken egunetan komunikabideetan azaldu diren hainbat albiste; «kudeaketa kaskarra ez da ospitale berri bat eraikitzearekin konpontzen», esan dute

Rebeka Calvo Gonzalez Tolosa

Tolosaldeko Asuncion klinikari buruzko lerroburu eta albisteak ari dira zabaltzen azken asteetan. Fiskaltzak abiarazitako ikerketa dute iturburu, baina albiste horren harira, beste hainbat ere zabaldu dira. Informazio jario honek guztiak Asuncion klinikari lan egiten dutenen kezka areagotu besterik ez du egin. Egoera ikusita klinikako LAB sindikatuko ordezkariak, langileen gehiengoak eta hainbat erabiltzailek ere argibide batzuk eman nahi izan dituzte. Asuncionez enpresa batzordean ELA sindikatuak 5 ordezkari ditu eta LABek 4.

BABESA

Gaia kokatzeko Fiskaltzaren ikerketa ekarri duen salaketa ekarri nahi izan dute gogora. Langile ohi batek jarri zuen salaketa eta langile hori babestu nahi izan dute: «Langile ohi hematologoaren profesionaltasuna baieztatzen dugu. 12 urte baino gehiagoz aritu zen bere lanean zerbitzu desberdinetako buru bezala, Gomez Montoya jaunaren –Asuncion klinikako kudeatzailea– presiopean lana utzi behar izan zuen arte. Pena handiz utzi zuen eta ez hain boluntarioki, ulertarazi nahi diguten bezala. Beste profesional asko bezala, lan kargak areagotzeak, presioak eta lan egoeraren aldaketek bultzatuta joan zen».

Fiskaltza medikuntzako espezialitate titulua Espainian ho-



Eskualdean mobilizazio ugari egin dira azken urteetan Asuncion klinikak ematen duen zerbitzuaren harira. I.U.

mologaturik ez dutenen kasuak ari da ikertzen, eta horri buruzko argibideak eman dituzte. Izan ere, titulua homologaturik ez dutenen egoera ez da besteen berbera, esan dutenez. «Ez daude gainontzekoen berdintasun egoeran; ezin dute kexatu amaitezinak diren lanegunak direla eta, izan ere zeregin guztiak bukatzean amaitzen dute laneguna, hau da, ebakuntzak eta ospitaleratuen zein gaixoen bisitak bukatzean, edota geroz eta ugariagoak

diren kontsultak amaitzean». Egoera horrek bultzatuta utzi dute hainbat medikuk Asuncion klinika, esan dutenez, «horrez gain, zerbitzu kartera handitu nahi zuten mutua gehiago hartuz eta beste klinika batzuetara joanez», salatu dute.

«HOMOLOGATU GABEKOEN KOPURUA GORANTZ DOA»

Langileen ustez egoera hori «agian ez da irregularra» izango, baina badela «atipikoa» diote,

diru publikoarekin aritzen den klinika baita. «Are gehiago, klinikari Osasun sailarekin duen kontzertuan espezialista homologatuei buruzko puntu espezifiko bat dagoela hartu behar da kontuan. Jon Darpon kontseilari ohia, Jon Etxeberria lurralde ordezkaria eta ESI-ko Marisa Merino jakinaren gainean daude. Baina homologatu gabeko espezialista kopurua gutxitu ordez, kopurua gorantz doa, zerbitzuko kopuruak begiratzeari besterik ez dago».

Asuncion klinikaren kudeaketa pribatua da, baina zerbitzu publikoa eskaintzen du Tolosaldean, Osasun sailarekin duen kontzertazio edo ituna medio, eta horrek langileen gehiengoaren kezka sortzen du. Kezkak «Eusko Jaurlaritzan, Osasun sailean eta

lurralde ordezkariaren aurrean» salaketa jartzera eramane zituen eta azken horrek bi aste eta gero emandako erantzunak «pazienteen segurtasuna eta langileon lan hitzarmena nahasten» zituela salatu dute.

Egoera honek guztiak hainbat mediku Asuncion klinika uztera eramane dituela errepikatu dute, «lan kargak handitzen ari dira lehen zerbitzuetan eta baita arreta espezializatuan ere».

ITXARON ZERRENDAK

Euren iritziz arreta espezializatuak lehen «ondo funtzionatzeko» zuen, baina gaur egun espezialistak falta dira, eta horrek itxaron zerrendak luzatzea ekarri du. «Sistemak, bertako langile guztien profesionaltasunarengatik funtzionatzen du, baina garesti ari zaigu ateratzen Osakidetzak Tolosaldean aurrezten duena».

Asuncion klinikari lan egiten dutenen lan baldintzak izan di-

Langileen gehiengoak salatu du lan kargak handitu direla lehen zerbitzuetan eta arreta espezializatuan

tuzte gogoan, baina baita ere erabiltzaileak: «Denak zerga berdina ordaintzen ditugun arren, ez gaude beste eskualdeen pare, langile gutxiago ditugu eta lanordu gehiago egiten dituzte. Guzti honek gaixoen segurtasunean izan dezakeen eraginarekin».

Asuncion klinikari 340 langiletik gora aritzen dira egunero eta horiek zer gertatuko den galdetzen dute ere, «klinikako langileok beste eskualdekoen lan berdina egiten dugu, baina baldintza prekarioagoetan, osasun publikorako egiten dugun lana ez da kontuan hartzen».

Asuncion klinikako LAB sindikatuko ordezkariak, langileen gehiengoak eta hainbat erabiltzailek mezu garbia eman nahi izan dute: «Osasunaren kudeaketa kaskarra ez da ospitale publiko berri bat eraikitzearekin konpontzen. Eskualdean ditugun arazo guztiak konpondu behar dira, langileena barne».



zozketak

Atarikideentzat bi sarrera ditugu



**DELTECO GIPUZKOA
BASKET - LECHE RIO
BREOGAN
partida ikusteko**

Martxoak 15, 18:00etan,
Jose Antonio Gasca pabiloian.

Atarikideentzat lau sarrera ditugu



Kamerata Euskdivarius

Martxoak 13,
20:30etan, Leidorren.



Fidelio opera zuzenean

Martxoak 17,
20:45etan, Leidorren.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

Ura, natura eta klimaz kontzientziatuz, inplikatzeari helburu

Tolosako Udalak natura eta klimaren gaiak mahai gainean jarriko ditu, eta Uraren Astea eta Asteaklima ospatuko ditu martxoan



Tolosako Aranburu jauregian apirilaren 5a bitarte egongo da 'Ura eta Natura' argazki erakusketa. E. MAIZ

Eneritz Maiz Etxarri Tolosa

Uraren Nazioarteko Eguna da martxoaren 22a, eta horren bueltan, Uraren Astea antolatu du Tolosako Udaleko ingurumen sailak. Horrez gain, hilaren 22tik 28ra Asteaklima izango da.

Naturaren eta klimaren egoeraz kontzientzia hartzeko, eta herritarrek sentsibilizatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Uraren Nazioarteko Eguna aitazakian, hasteko, argazki erakusketa jarri dute. *Ura eta natura* erakusketak herritarren eragitea du helburu, eta hiru ataletan banatuta dago: ura protagonista duten argazkiak, euskal natur eremuetako argazkiak eta Tolosaldeko eremu naturalen informazioa eta argazkiak.

Ura eta natura ataletako argazkiak Kaiko argazkilari valentziarrarenak dira eta Tolosaldekoak Iñaki Alonso herritarrenak. Biodibertsitatea ezagutzera eman eta honen hauskortasunaz eta sufritzen dituen arazoez kontzientzia hartzeri bultzatuko ditu bisitariak.

Bestetik, ibaiaren garbiketa eta espeleologia irteera egingo dira. Ibaiaren garbiketan, lehen hiru egunetan, ia 300 ikaslek parte hartuko dute. Hilaren 28an, berriz, edonork parte hartzeko aukera izango du, baina ibaiarekin lotura zuzena dutenak ere ariko dira: TAK arraun el-

karteak, Zumardi Elkartea, Arrantzale taldea, Tolosako Babes Zibila eta iazko garbiketan parte hartu zuen Forest elkarteak ki-deak.

Nazio Batuek milurteko honetarako zehaztu dituen helburuekin bat egin du udalak. «Azken urteetan Tolosako ibaietako uraren kalitatea asko hobetu bada ere, ibaien ertzeko plastikoz beteta jarraitzen dute, eta hori aldatzea ezinbestekoa da», azpimarratu dute udaletik, eta gehitu, «plastikoen erabileran eta horiek ingurumenean duten eraginaz hausnartu behar da».

Akerbeltz-Amarozko Mendi Elkartearekin elkarlanean anto-

latutako espeleologia irteeran Mendikute kobazuloa ezagutuko dute, igandean. Horretarako, aldeztu aurretik izena eman behar da 688 727983 telefonoan edo tolosakoingurumenzentroa@gmail.com helbidean.

ASTEKLIMA

Euskadiko Klima Aldaketaren Astearekin bat egin du udalak, eta Asteaklimaren barruan, kontsumo jasangarriak aholkuak emango ditu Gorka Egiak, eta bestetik, 6 eta 12 urteko haurrei zuzendutako Ipar Poloa salbatzera goaz! jolas kooperatiboak izango dira, Zerkausiak, disko eta liburu azokarekin batera.

URAREN ASTEA ETA ASTEKLIMA

Martxoak 6 – apirilak 5

Ura eta Natura argazki erakusketa, Aranburu jauregian.

Martxoak 15, igandea

09:30. Espeleologia irteera. Urkizuko pilotalekuaren ondoan elkartuko dira. Aurretik izena eman behar da bertan parte hartzeko.

Martxoak 16, 17 eta 18

Oria ibaiaren garbiketa egingo da, ikastetxeekin. Zerkausi Usabalera, eta Santa Maria elizaren atzean.

Martxoak 24, asteartea

18:30. Kontsumo arduratsua susta-

tzeko aholkuen inguruko hitzaldia izango da, Gorka Egiarekin kultur etxeko areto nagusian.

Martxoak 27, ostirala

18:30. *Ipar Poloa salbatzera goaz!* jolas kooperatiboak egingo dituzte, Zerkausiak eta berreskuratutako diskoen eta liburu azokaren egingo da, egun osoan zehar Trianguloan. Eguraldi txarra izanez gero, Zerkausiak izango da.

Martxoak 28, larunbata

11:00. Oria ibaiaren garbiketa egingo da, Zerkausiaren ontzirekuekin elkartuta.

'Euskal Herritik Etiopiarra' gaur, Topic zentroan

TOLOSA // Amalur jardunaldien barruan, Fabiola Jubin eta Angel Cuerdok ikus-entzunezkoa eskainiko dute, gaur, 19:30ean, Topic zentroan. Euskal Herritik Etiopiarra famailian eginiko bi-diaiaz ariko dira. Bestetik, ostira-lean, eta ordu berean, Erroma ezagutzeko aukera izango da Livia Paretiren eskutik: *Pintxo-tan...Erroman?* izango da.

Herri lanetarako langile bat kontratatuko dute

BIDANIA-GOIAITZ // Udaleko lan pilaketa dela eta, sei hilabetetako langile bat kontratatu behar du Bidania-Goiazko Udalak. Langabezia dauden herritarrek eta lanpostuan interesa dutenak idazkaritzan izena eman beharko dute, hilaren 27aren aurretik. Balorazioa egin ahal izateko curriculum-a edo bizitza laborala aurkeztu beharko da.



Pala txapelketako une bat. I. URKIZU

Pala txapelketa, haur eta helduentzako Bidania-Goiatzen

BIDANIA-GOIAITZ // Iaz bezala haurrentzako pala txapelketa antolatu du Ernio Guraso Elkar-teak. Aurten, ordea, berrikuntzekin datoz: helduen txapelketa. Parte hartu nahi dutenek hilaren 31 baino lehen eman beharko dute izena. Eta honela banatu dute txapelketa: LH1-LH3; LH4-LH6; DBH1-DBH4, eta 17 urtetik 99ra bitartekoak.

Tolosako Gazte Asanbladak batzarra egingo du, bihar

TOLOSA // Tolosako Gazte Asanblada 2019-2020 ikasturtean buru-belarri lanean ari da, eta dinamika bat aurkeztu nahi du. Ikasturte amaieran Gazteburua antolatzeke asmoa dute, eta horretarako Tolosako gazte langileen beharra dutela adierazi dute. Hori dela eta, Tolosako gazte langile guztiei deialdia egin diete, bihar, 18:00etan kultur etxean egingo den asanbladara joateko.

Liburu aurkezpena eta argazki rallya, Martxo Morean

ALTZO // Altzoko (B)eroa Talde Feministak, Mariren Alabak eta udaleko berdintasun sailak antolatuta, Martxo Morea ekitaldi sorta bukaerara iritsiko da aste-buruan. Etzi, *Berdea da more berria* liburuaren aurkezpena egingo du Onintza Irureta idazleak, 17:00etan, Batzarremuñon. Igandean, berriz, eta berdintasuna gaitzat hartuta, Argazki Rallya egingo dute herrian zehar.

Gazteei zuzendutako 'Haien Zapatetan' antzezlanak, bihar

E. Maiz Tolosa

Haien Zapatetan antzezlanak aurkeztuko dute, bihar, Tolosako gazte topagunean, 17:00etan. Sarrera doan izango da, eta emanaldia 12 eta 17 urte arteko gazteei zuzenduta dago.

UNRWA Euskadi, Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia eta Hortzmuga antzerki taldearen eskutik iritsi-

ko da Tolosara. *Haien Zapatetan* ikuskizunak antzerkia eta bizi-pen jolasa izango ditu ardatz. Publikoak bere azalean biziko du Palestinako emakume errefuxiatuek bere egunerokotasunean pairatzen duten ikusezintasuna eta isiltasuna.

Zehazki, emakume ororen duintasunak jasaten duen oina-zea eta euren eskubideen urraketa azaleratzen dira.

«Nor garen esatea ez da soilik izena, adina eta jatorria adieraztea»

KARMELE GURRUTXAGA
PSIKOLOGOA

Ahalduntzeari eta garapen pertsonalari buruzko tailerra eskainiko du Gurrutxagak, Berrobin. Gaur izango da lehen saioa, 18:00etan, udal liburutegian eta bigarren saioa martxoaren 17an eskainiko du.

Irati Saizar Artola Berrobi

Berrobiko Udalak hainbat jarduera antolatu ditu Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira. Egitarau horren baitan antolatu dute Gurrutxagaren tailerra ere. Besteak beste, norberaren barrura begira jarriko ditu parte hartzaileak, nor diren jabetzeko eta kanpora begira dutenaz hausnartzeko.

Aurreko astean ere izan zinen Berrobin, 'Etiketahalduntzen' hitzaldia eskaintzen. Zer moduz?

Topagune bizia izan zen. Adin ezberdineko emakumeak eta gizonezko bat elkartu ginen. Ahalduntzearen ikuspuntu horretan, emakumearen eta gizonezkoaren lehia edo borrokari baino, bi generoen elkarbizitzari lekua egitearen beharrari gehiago begiratu genion.

Eta tailerra ere hortik bideratuko duzu?

Ahalduntzearen kontu hori nola daramagun ikustea izango da helburua. Geroz eta barnerratuago daukagu berdintasunaren diskurtsoa, baina diskurtso hori eta aldaketa horiek nahiko natural ematen ari garen bezala, barne mailan badaude kontraesan batzuk. Esaterako, baditugu sus-



ATARIA

traia unibertsal eta biologiko batzuk, nahi gabe, besteak beste eramaten gaituztenak, gure hurbilekoak babesgabe ikusten ditugunean. Aberatsa da zaintza eman behar denean zaintza egitea, baina hor non geratzen da nire ni-a, nire izatea? Ildo horretatik doa tailerra.

Nola planteatu dituzu saioak?

Bietakoren batera joan ezin duenak ere aukera izango du saio bakarrera joateko. Batetik, geure bizitzaren jabe izatea nola galtzen dugun ikusiko dugu. Eta bestetik, guk geuk bizitzako es-

parru ezberdinetan hartu ditugun funtzio edo rol horiek zenbateraino aukeratu ditugun eta zenbateraino erregulatu nahi ditugun ikusiko dugu.

Ahalduntzearekin batera garapen pertsonala ere landuko duzue.

Bai. Garapen pertsonala, norberak pertsona bezala bere buruaren jabetza eta berak nahiko lukeen erabakiak eta pausoak emateko gaitasuna izatea da. Zuhaitzaren metafora erabiltzen dut azaltzeko. Gutako bakoitza zuhaitza izango bagina nola gau-

den pentsarazten diet: esaterako, gure bizitzaren fruituak nola dauden. Fruitu horiek kanpora begirakoak ote diren, hau da, besteentzako egiten ditugunak diren, edo norberak bere buruarantz egindako fruituak ote diren. Eta bestetik, gure sustraiak nola dauden: lehendik jaso ditugun baloreak eta hezkuntzak, adibidez.

Barrura eta kanpora begira jarriko zarete, beraz.

Gure rolak eta gure argia, hau da, kanporantz azaltzen duguna aztertuko dugu. Hor, hausnartu egingo dugu: Zenbateraino nahi dut besteentzako egotea? Zenbateraino behar dut niretzako egotea? Bestetik, gure kontraesanez, gure itzalez jabetzea nahiko nuke. Ni beste pertsonak zaintzean garrantzitsu sentitzen baina, gutxiago zaintzen hasten naizenean, nor izango naiz?

Ahalduntzearen begiradatik hasten garenean, emakumeok ez daukagu garbi nor garen. Nor garen esatea ez da soilik izena, adina eta jatorria adieraztea. Pertsona bezala nor garen esan behar dugu.

Oinarrian, autoezagutza dago?

Bai, hori da. Autoezagutza, zuhaitzari begiratu, kanpora azaltzen dugunaz jabetzea garrantzitsua da. Baita zer oztopo ditugun konturatzeko ere. Oztopoak, azken batean, aldatzea kostatzen zaizkigun patroia batzuk dira.

Hor, konfiantza edo autoestimua bezalako ezaugarriak landu behar dira?

Ugaltunak garen aldetik, besteei harremana bilatzen dugu. Eta besteengandik iristen zaigunak gure autoestimuan eragiten digu, onerako edo kalterako. Hor, ezinbestekoa da zuhaitzaren enborrari begiratzea eta enbor hori sendoa izatea. Eta gu ondo sentitzeko modua besteen bidez erregulatuko bagenu ere, gutxienez, behintzat, horretaz jabetzea.

Aste Santuko ludotekarako hezitzaileak behar dituzte Berastegin

Apirilaren 6tik 8ra eta 14tik 17ra eskainiko dute zerbitzua; martxoaren 15a izango da curriculumak bidaltzeko azken eguna

I.S.A. Berastegi

Aste Santuan ludoteka zerbitzua eskainiko dute Berastegin. Egun horietarako hezitzaileak behar dituzte, HH2 eta LH6 bitarteko umeei lan egiteko. Interes dutenek, martxoaren 15erako bidali beharko dute euren curriculumak beastige@gmail.com helbidera.

Hezitzaile postua eskatu ahal izateko derrigorrezkoa izango da 18 urte baino gehiago izatea eta euskaraz jakitea. Hautaketarako garaian, honako baldintza hauek ere hartuko dituzte kontuan: hezkuntza munduari lotutako ikasketak izan edo ikasketak burutzen egotea (batez ere HH eta LH gradua), aisialdiko hezitzaile titulua izatea praktika edo praktikarik gabe, udalekuean hezitzaile bezala eskarmentua izatea, edota bestelako ikastaroak izatea: musikarekin edota atsedaldiarekin lotutakoak, esaterako.

Lanpostu horretan, guraso elkarrekin soldatapeko kontratua eskainiko du, bestelako bitartekaririk gabe. Bestalde, apuntatzen den ume kopuruaren arabera, hezitzaile bat baino gehiago beharko dira, eta lankide gehiagorekin lan egitea tokatuko litzaike hezitzaileari. Eta hezitzaile lanpostu hori hartzen duenak, eguneroko ekintzak dituen programa bat osatu beharko du, guraso elkarrekin emango dion oniritziarekin.

ASTE TXURI-URDINA
MARTXOAREN 9TIK 15ERA

Gure txapeladun garaipen historikoa oroitzeko erretilua ATARIAren eta HITZAren eskutik.

ATARIKIDEEK

GAINERAKOAK

~~8€~~ **5€**

~~1€~~ **9€**

Bi erosita, hirugarrena opari.

Salmenta puntua:

ATARIAren bulegoa: San Esteban 19, Tolosa



harpidedun izateak badu saria

ERRIGORA proiektuko 3 saski

Udaberriko kanpainarako egin zure eskaera. Otsailaren 27tik martxoaren 12ra. www.errigora.eus

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

Parte hartzeko deitu: **902-52 02 40** edo sartu ATARIAko ZOZKETAK atalean. Parte hartu hila bete honetan, martxoaren 2tik, martxoaren 16ko 12:00ak arte. Saridunen izenak martxoaren 17an, asteartea, argitaratuko ditugu.

Katramila antzerki taldeak emanaldia eskainiko du igandean

Erredakzioa Anoeta

Andoaingo antzerki eskola da Katramila. Azkeneko 10 urte luzeetan dabil martxan eta une honetan 13 talde ari dira bertan, 100 ikasletik gora. Kristina Ropero irakasleak azaldu duenez, «6 urtetik 65 urtera bitarteko ikasleak dabilta eskolan».

Igandean, *Beldur Txo Uua* izeneko emanaldia eskainiko du Katramila taldeak Anoetako Mikelasagasti aretoan, 18:00etan hasita. 2018an Andoaingo Bastero antzokian estreinatutako obra da eta iazko ekainean saria eman zioten Donostiako Gazteen Antzerki Topaketan. «Horri eskerak eta euskara batzordeak es-

katuta Euskararen Egunean Lugaritz kultur etxean emanaldi bat atera zitzaigun eta zenbait eskoletan ere aritu gara», esan du Roperok.

Orain Anoetan ariko dira. Taula gainean 9 antzezle dira eta Roperok egiten ditu zuzendari lanak. Nora Urdanpilleta anoetarrek ere parte hartzen du aktore gisa. «Bizitzan nekez oztopatzen gaituzten beldurrei buruzko antzezlan da, umoretik landutakoa», aipatu du antzerkiaren zuzendariak. 12 urtetik aurrerako publikoarentzat prestatutako lana da eta 3 euro ordaindu behar dira sarrerakoan. Herritar guztiak animatu dituzte igandeko emanaldira.



Irisgarritasuna hobetuta eta estalpea jarrita plazak izango duen itxura aurkeztu du udalak. ATARIA

Plazako lanak aurten hasteko konpromisoa hartu du udalbatzak

Anoetako Udalak martxoaren 1an egindako osoko bilkuran onartu zuen 2020ko aurrekontua; Plazako irisgarritasuna hobetzeko eta estalpea egiteko lanak dira inbertsio nagusia

Jon Miranda Anoeta

Parte hartze prozesu baten ondorioz anoetarrek iaz erabaki zuten herriko plazan estalpea behar zutela. Non joango zen eta zein ezaugarri izango zituen ere zehaztu zuten prozesuan, baina lanak abiatu aurretik udala konaturatu da irisgarritasuna bermatu behar duela ingurune horretan. Plazaren eta parkearen artean dagoen koska leuntzeko bi eskailera maila egingo dituzte eta erdian kokatuko dute estalpea. Irisgarritasuna hobetzeko lanek 300.000 euro inguruko kostua izango dute eta estalpea egitea berriz 140.000 euro inguru kostako da. Martxoaren 2an egindako osoko bilkuran, aho batez, plazako lanak aurten abiatzeko konpromisoa hartu zuten talde politiko guztiek.

2.400.000 euroko aurrekontua izango du Anoetako Udalak 2020an. EH Bilduko zinegotzien aldeko botoekin eta EAJkoen

abstentzioarekin onartu zen hila hasierako bilkuran. Pello Estanga alkateak nabarmendu du hirigintza obretatik harago, pertsonetan egiten diren inbertsioak direla «benetako inbertsioak». Horregatik herrian zerbitzu beharra areagotu egin dela ikusita, udaletik «erantzun zintzo» bat eman nahi izan dutela azpimarratu du alkateak eta behar horri erantzuteko pertsonal gastuak «dezente» igo dituztela. Azkeneko bi urteetan 200.000 eurotan egin du gora gastuen atal honek.

«Kalitatezko zerbitzu bat eskaini ahal izateko udal langileengan inbertitu beharra dago, epe luzearako apustu bat dela uste dugu», esan du Estanga. Anoetako Udalak gazteria zerbitzua abiatu zuen aurreko udazkenean, horretarako suspertzaile bat kontratatuta. Lehen sektoreaz eta ingurumen sailaz arduratzen den teknikariaren kontratuari ere eutsi egingo diote aurten eta

hirigintza sailean aparejadoreari lan dedikazioa handitu egin diote, %68tik %100era. Norabide berean, gizarte zerbitzuak indartzeko erabakia hartu du udalak eta teknikariari lan jarduna %60tik %80ra igo zaio; sail horretan jardun erdiz administrari bat ere ariko da.

Estangak aurtengorako aurreikusten dituzten beste inbertsioak ere zerrendatu ditu: plaka fotovoltaikoak jarri zituzten iaz kiroldegian eta ikastolako argindarra hortik hornitzeko lotura egingo dute aurten; Bide batez, ikastolaren teilatua konpontzeko diru bat gorde dute aurrekontuan; Landa bideak konpontzeko asmoa ere badute, bereziki goi bailarara doan errepidearen zorua hondoratzen ari baita; Eta kaleak garbitzeko makina erosi dute, «kaleak ugaritzen ari direlako eta modu horretara brigadako langileei lanak arinduko zaizkielako».



EMAKUMEAK ARGAZKITAN

Anoetako emakumeak herriari izenburua daraman erakusketa zabaldu dute udal liburutegian eta datorren martxoaren 31ra arte izango da ikusgai. Herriko emakumeak jardun ezberdinetan ikus daitezke argazkitan eta Anoetako Aste Morearen barruan antolatu dute argazki erakusketa. J.M.

Udalekuetan begirale izateko izen ematea zabalik da Aiztondon

AIZTONDO // Aduna, Alkiza eta Larraulgo udalek antolatu dute udaleku irekia, ekainaren 22tik uztailaren 17ra. Begirale izan nahi dutenek, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatean eman dezakete izena martxoaren 16tik 29ra. Parte hartzeko interesa dutenek aterpeak@urtxintxa.eus helbidera idatzi dezakete.

Doako ikastaroak eskainiko dituzte Anoetan

ANOETA // Cebanc elkarteak Anoetako Udalarekin batera hainbat ikastaro antolatu ditu. Doakoak dira eta martxoaren 13ra arte eman daiteke izena udaletxean, liburutegian edota infokultura@anoeta.eus helbidean. Adimen emozionala, barkadadea edo lehen sorospenak izango dira landuko diren gaiak.

Voith enpresan akordioa lortuta greba amaitu dute

Astearte arratsaldean batzarra egin ondoren, langileen batzordeak enpresak egindako proposamena onartu du eta greba eta mobilizazioak bertan behera utzi dituzte

Erredakzioa Ibarra

Akordioa lortuta, mobilizazioak bertan behera utzi dituzte Voith-heko langileek. Langileen batzordearen esanetan, akordioarekin enpresan dauden soldaten arteko aldea «txikitu» egiten da, nahiz eta aitortu duten oraindik ere badagoela lana egiteko. Batzarra egin ondoren eta langileen batzordeak proposamena onartuta, greba eta mobilizazioak bertan behera utzi dituzte. Hurrengo greba egunak martxoaren, 17, 18, 25 eta 26rako zituzten aurreikusita.

Bestalde, langile ordezkariak jakinarazi dute 76 langileri era-

gingo dion aldi baterako enplegu erregulazioko espediente bat mahai gainean duela enpresak, apiriletik abendura arte luzatuko dena, «eskaeren jaitsiera bat dela eta». Kontsulta epea datoren ostiralean abiatuko dela jakinarazi du langileen batzordeak eta EEE hau «bertan behera» uzteko eskatu du.

GAMESA ERE BORROKAN

Voith ez da borrokan ari den eskualdeko enpresa bakarra. Asteasuko Siemens Gamesako langileek greban jarraitzen dute, eta gaur, Asteasuko enpresa aurrean mobilizatuko dira. Bihar, berri, Adegiren egoitza aurrean.



Aurreko asteko mobilizazioa. A. IMAZ

Trafikoa eta TAOa erregulatzeko iradokizun eske

Ordenantzen berrikuspena egiteko ibartarren iradokizunak jaso nahi ditu Ibarako Udalak, martxoaren 23rako

Erredakzioa Ibarra

Ibarako Udalak, trafikoa eta TAO-a erregulatzeko dituzten ordenantzen berrikuspena egin nahi du. Egokitzenak egin aurretik, ordea, herritarren iradokizunak jaso nahi dituzte, modu horretan, berrikuspena guztien artean egiteko.

Martxoaren 23a bitarte jasoko dituzte herritarren iradokizunak udaletxean. Ondoren, politikari

eta udal teknikariek herritarren iritziak aztertuko dituzte eta jarraian, egin beharreko egokitzenak eta aldaketak egingo dituzte bi ordenantzetan.

Horren ostean, udalbatzak onartu beharko ditu plenoan eta behin betiko onarpena eman aurretik, berri ere herritarren iradokizunetara irekiko dira. Azkenik, behin betiko izaera izango dute, eta bertan jasotakoa aplikatzen hasiko da udala.

Festak antolatze bilerak egingo dute, gaur, Ibarra

IBARRA // Ibarako festa batzordeak herriko jaiak antolatzen jarraitze bilerak egingo du. Gaur arratsalderako jarri dute hitzordua, 19:30ean, udaletxe bartzar aretoan. San Bartolome festak, abuztuaren 21etik 25era ospatuko dituzte.

Dama Beltzak-en kontzertua, bihar, Oresa ganbaran

OREXA // Estitxu Pinatxok eta Mikel Santxex musikariek kontzertua eskainiko dute Ostiral Kulturalak egitasmoaren barruan, bihar, 22:00etan, ostatu-ko ganbaran.

Corellara irteera antolatu dute Bizi Nahi elkarteak

IBARRA // Larunbatean, Nafarroara irteera antolatu dute Bizi nahi elkarteak. 09:00etan abiatu eta Noain bisitatu ostean Corellara joango dira. Ondoren, Castejone bazkalduko dute. Bazkideek 25 euro ordaindu beharko dituzte, eta besteek 30.

Zergak ordaintzeko epea, trakzio mekanikodunentzat

ELDUAIN // Apirilaren 7a bitarteko epea jarri du udalak Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko zergak ordaintzeko. Helbideratu gabekoek udaletxean edota bankuan egin beharko dute.

Pilotalekuko argiztapen partziala doan jarri dute

Irati Saizar Artola Lizartza

Lizartzako Aztinondo pilotalekuan, argiztapena aldatzeko lanak egin ditu udalak. Eskaladako gunean eta kantxan, etengailu berriak jarri dituzte eta sakaldi bakoitzean ordubetez argia piztuta mantenduko da.

Kantxako kasuan, 16:30etik 19:00etara doan ezartzea erabaki du udalak. Aldagelara bidean dauden eskaileretan etengailu

berri bat jarri dute, eta sakaldi bakoitzak ordubetez iraupena izango du ordu tarte horietan.

Eskaladako gunean, berri, egun guztian zehar piztu ahalko da argia, eta sakaldi bakoitzetik ordubetera itzaliko da.

Pilotalekuan inor ez dagoenean argia piztuta ez geratzeko hartu du neurria udalak. Izan ere, azaldu dutenez, negu partean eta eguraldia lagun ez den egunetan, jolasleku bakarrenetakoa

da pilotalekua, eta garrantzitsua iruditzen zaie argia doan izatea.

KIROL ARROPA BERRIA

Otsabio Kirol Elkarteak kirolerako zein kalerako arropa diseinu berriak jarri ditu eskuragarri.

Bizikletarako eta korrikarako jantziak ikusteko eta probatzeko aukera martxoaren 14an eta 15ean izango da, 10:00etatik 12:00etara bitarte, udaletxe bartzar areto nagusian.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Zizurkilen izango du amaiera aurtengo Aiztondo Klasikoak

Igande honetan izango da jokoan, eta bertan afizionatu mailako txirrindulari onentsuenek parte hartuko dute. Helmuga aurretik malda piko bat jarri dute.

Imanol Garcia Landa

Asteasutik abiatu eta Zizurkilen izango du amaiera aurtengo Aiztondo Klasikoa txirrindularitza probak. 145 kilometroko ibilbidea du eta guztia Aiztondo bailaran egingo dute. Joxe Ramon Aiertza antolakuntzako kideak azaldu duenez, «azken momentuko aldaketa batzuk direla eta, lasterketa guztia Aiztondo bailarako zirkuituan izango da». Zirkuituaren ibilbidea Asteasu, Zizurkil herrigunea, Aduna, Villabona, Zizurkil eta Asteasu izaten da. Hasieran zirkuituari bi itzuli emango dizkiote, eta ondoren N-1 errepidera aterata, Iruratik Anoetara joan, eta Alkiza igoko dute. Ondoren beste sei itzuli emango dizkiote zirkuituari.

Dagoeneko hamazazpigarren edizioa izango da aurtengoa. 09:45ean izango du hasiera eta

bukaera 13:00ak eta 13:30ak bitartean izango dela aurreikusten dute antolatzaileek. Zizurkilgo Elbarrena futbol zelaiaren ondoren izango da helmuga. «Aiztondoko sei herriren artean antolatzen den proba da. Urtero herri guztietatik pasatu nahi izaten dugu, eta irteera eta helmuga herriak aldatu egiten ditugu edizio batetik bestera, herri guztiek protagonismo bera izateagatik», esan du Aiertzak.

Ez da aldapa gora bukatuko, baina aurten berritasun moduan igoera txiki bat sartu dute. «Kanposantu bidea deitzen diogu eta Zizurkil Behetik Gora kilometro batean igotzen den eremu bat da. Gogorra da, %15 eta %20 arteko maldak ditu, eta azkeneko itzulian izango denez, eta azken hamar kilometroetan, garaipenerako erabakigarria izan daiteke», zehaztu du Aiertzak.

Zaleen interesa piztu dezake aldapa piko horrek. Helmuga egongo den puntutik 200 metro-ra dago aldaparen hasiera, eta beraz, zaleentzako aukera erakargarria izan daiteke aldapa horretan sortzen den ikuskizuna ikusi eta gero helmugara oinez joatea. Alkizako igoera ere puntu interesgarria izango da lasterketa mugitzeko. «Urtero izaten dira ihesaldi asko, eta urte batean edo bestean ihesi joan denetako batek irabazi izan du lasterketa», esan du Aiertzak. «Lasterka oso gogorra bihurtzen da eta ibilbidea bera oso gorabeheratsua izaten da».

Guztira 25 taldek parte hartuko dute, bakoitzetik zazpi txirrindularik. Espainiako Koparako baliagarria da Klasikoa, eta egun afizionatu mailan aritzen diren txirrindulari onenak ariko dira bertan lehian.

Berdel Pilota Festa hartuko du etzi Villabonak

Erredakzioa

Behar Zana pilota elkartek antolatuta, larunbat honetan Berdel Pilota Festa egingo dute Villabonan. 16:30ean hasiko dira ekitaldiak, II. Pilota-Berdel topaketarekin. Eguraldi ona eginez gero, Errebote plazan elkartuko dira Aiztondo bailarako elkarteko pilotariak, eta txarra eginez gero, Beharzana frontoian ariko dira. 6 eta 12 urte bitarteko 90 gaztetxok eman dute izena parte hartzeko. Hortik gutxira, 16:45ean, IV. Emakumeen Txapelketa Azkarrari hasiera emango diote Beharzana frontoian. Hamar parte hartzailek eman

dute izena eta bost bikote osatuko dituzte. Kanporaketak jokatuko dituzte eta finala 18:45ak inguruan izango dela aurreikusten dute. Eguraldi txarra egiten badu, Amasako frontoian ariko dira, gaztetxoei lekua utziz Beharzana frontoian.

18:00ak aldera hasiko da berdel, txakolin eta sagardo dastaketa, Berdura plazan. Eguraldi txarra bada, Gudari plazan egingo da, Beharzana frontoiaren ondoren. Parrilan egingo da berdela eta horretaz Getariako Elkano Arrantzaleen Kofradiakoak arduratuko dira. Ateratzen den dirua Behar Zana pilota elkartearen alde izango da.



Oruesagasti, Lasarte eta Agirre, Arrigorriagan. ATARIA

Belabietakoak, Arrigorriagan eta Udaberri Torneoan

Erredakzioa Ibarra

Belabieta Kirol Klubeko gimnasiek bi torneo izan dituzte asteburu honetan. Horietako bat Arrigorriagako Harrigarri Klubaren 10. urteurrena dela-eta antolatutakoa. Bertan, Belabietako infantil b2 taldeak seigarren amaitu zuen. Banaka, Aitana Manterola (infantil b) seigarren izan zen, Inko Oruesagasti (kadete a) bigarren, June Agirre (jubenil b) hirugarren, eta Eider Lasarte (jubenil b) bigarren.

Bestalde Udaberri Torneoan izan zen jokoan Donostiako Karmelo Balda frontoian. Belabieta-ko ondorengo hiru taldek hartu zuten parte emaitza hauekin:

alebin Herrikide 14. postuan, alebin Uzturpe 26. postuan, eta kadete C1 lehen postuan.

BILLABONA FKE	
Arratzain futbol zelaia	
I. INFANTIL MAILA	Larunbata 14, 10:00etan BILLABONA F.K.E. ZESTOIA K.B.
I. KADETE MAILA	Larunbata 14, 11:45ean BILLABONA F.K.E. USURBIL F.T.
ONDORREKO JUBENIL MAILA	Larunbata 14, 16:30ean BILLABONA F.K.E. REAL UNION CLUB

Txirrindularitza eta Zizurkil lotzen dituen erakusketa

Erredakzioa Zizurkil

Aurten Aiztondo Klasikoa Zizurkilen amaitzen dela aprobetxatuz, Atxulondo Kultur Etxean erakusketa prestatu dute. Zizurkilek aspaldidanik eduki du txirrindularitzarekin lotura eta bere garaian, Klasikoa ere egin izan zen txirrindulari profesionalekin. Danenak ere talde profesionaletan izan zuten eta, besteak beste, Frantziako Tourrean ere parte hartu zuten Seat Orbea Darenen taldekoek. Patxi Alkorta izan zen talde horretako sortzaileetako bat, eta egun, bera oroituz, Aiztondo Klasikoak bere ize-na darama.

Emakumeen elite mailako frogak ere antolatu izan dira eta iaz Emakumeen Bira bailarara ekarztearekin lotu zuten, nahiz eta



Aiztondo Klasikoa Zizurkildik igarotzen. ATARIA

orain bertan behera geratu den proba hori, Eusko Jaurlaritzak Donostiako Emakumeen Klasikoko soilik bideratu baitu diru guztia. Azken urte hauetan ere txirrindularitza eskola martxan jarria da Zizurkilen.

Zizurkilek txirrindularitzare-

kin duen lotura hori guztia azaltzeko osatu dute erakusketa, eta bertan garai bateko argazki, bideo eta materiala erakutsiko da. Gaur 18:00etan irekiko da eta igande eguerdira arte egongo da zabalik. Bihar arratsaldean ere ikusgai izango da.



OSTEGUNA, 2020KO MARTXOAK 12
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



EUSKARALDIRAKO PRESTATZEN

Euskaraldiaren bigarren edizioko beritasun nagusia erakundeen parte hartzea da. Bada, Tolosaldeko hainbat herritan Euskaraldiari begira lanean hasiak dira eta egin beharreko zeregin garraztsuenetakoa ekimena erakundeei aurkeztea eta parte hartzera gonbidatzea izango da. Horregatik, elkarte, ikastetxe, kirol talde, komertzio edota enpresetara Euskaraldia azaltzera joatean esan beharrekoak lantzeko saioak antolatu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak antolatzaile taldeentzat. Tolosako Kultur Etxean izango da gaur lehen saioa, 18:30ean, eta martxoaren 17an, Villabonako Subijana etxean, bigarrena, ordu berean. Era berean, atzo eskualdeko ikastetxeetako ordezkariekin bildu ziren Galtzaundiko kideak —argazkian— Euskaraldiaz aritzeko. GALTZAUNDI

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus • 107.6 fm •

OSTEGUNA 12

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Piztiaren begiak lana azter-tuko dute irakurle taldean, Amaia Goikoetxeak dinamizatuta, liburutegian, 18:00etan.

Berrobi. Karnele Gurrutxaga psiko-logoarekin ahalduz eta garapen pertsonalerako tailerra, 18:00etan.

Ibarra. Gure arbasoengandik jaso dugun gizon ereduak, gaur egun ze balio du zuretzat? Gizonen juntadiza, kultur etxean, 19:00etan.

Tolosa. Zilar World Kafe, kultur etxean, 10:00etan, Tolosaldea Garatzenek antolatuta. 55 urtetik gorako herritar multzoak dituen beharrez eta horiek erantzuteko sortu daitezkeen aukera ekonomikoez.

Tolosa. Virginia Imazek hitzaldia eskainiko du umorea eta emozioak uz-tartuz, Tolosatzenen ikasturtea hasteko, 18:30ean Zerkausian.

Tolosa. Amalur jardunaldien barruan, Euskal Herriatik Etiopiarra, Fabiola Jubin eta Angel Cuerdorekin, Topic-en, 19:30ean.

Tolosa. A ver como te digo esto antzerkia, 3 tabernan, 23:00etan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, agenda, Kulturari Begira, Baserritik, Iñaki Zubeldia kale kantoitik eta eskualdeko musikarien proposamena.

11:00. Eutsi Goiari. Kirolak.

12:00. Entzuteko jaioak. Musika.

16:00. Zebrabidea. Magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

21:00. Mestibull. Musika, DJ Bullekin.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. E. Bengoe-txea. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Larra-mendi kalea, 6 behe 1. 943 67 5118.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosalde

16:30. Harri salda

17:30. Gaurkoan Tolosalde

21:30. Gaurkoan Tolosalde

22:00. Urrutiajunbe

22:30. Ezetz asmatu (San Fidel ikastola - Famatuak)

23:30. Gaurkoan Tolosalde

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro motela. Egun osoan zerua estalirik mantenduko da. Arratsalde- iluntze aldera euri pixka bat izango da. Haizeak ipar-mendebaldetik joko du eta termometroak behera egingo du, 14-16 gradura.

Bihar. Hobera egingo du eguraldiak. Egurdi aldera bitarte oraindik zerua nahiko estalirik egongo da eta euri txikia egingo du. Ondoren, atertu eta os-tartetxo batzuk zabalduko zaizkigu. Tenperatura maximoa 11-13 graduan geratuko da.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

